


TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** info

Osteguna, 2011ko abenduaren 15a. VIII. urtea. 2.325. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Egin dezagun bidea sendotuz doa, urratsez urrats eta herriz herri

Anoetan, Ibarra, Villabonan eta Tolosan euskal preso eta iheslarien aldeko hamaika ekitaldi antolatuta dituzte urteko azken hilabeteetan **6**



Tolosako Udalak aurkeztu du Larramendirako proiektua

Lurperatzearen orde, auzo elkartearantzako lokalak eta kultur azpiegitura proposatu ditu **4**



→ **Historia hurbilari begirada.** Frankismoa eta Trantsizioa Tolosaldean eta Leitzaldean liburua aurkeztu zuten, atzo, Tolosako Zerkausion. Argitalpenean euren bizipenak kontatu dituztenez gain, jende asko bertaratu zen Jon Mintegiaga eta Joxemi Saizar egileek liburuari buruz emandako azalpenak entzutera. **2**

Asteasuko I. Jostailuen Truke Eguna izango da larunbatean

Bihar 20:30ean Morauren kontzertua izango da Iturriondon, Kultur Taldeak antolatuta **5**



Eskolen irudia, etxe berriak eraiki baino lehen. TOLOSAKO UDAL ARTXIBOA

Amaitzear da Berazubiko eskolen 50 urtetako historia

Hemendik gutxira botako dituzten eraikinak 1960 urtean inauguratu zituzten; 1975ean itxi zen eta Gorosabel, Haur Eskola eta Laskorain ikastetxeek erabili dituzte **3**



**FUNERARIA
VASCONGADA
EHORZKETAK**

Larrea Poligonoa 34 - 1
www.funerariavascongada.com



Gertu...

VILLABONAKO
HILETA ZERBITZUAK
BETI LATOKI BULABEA

24 H..

943 694 873



Jon Mirandak aurkeztuta, Martxelo Otamendi, Joxemi Saizar eta Jon Mintegiaga Zerkausion izan ziren. I. URKIZU

Diktadura osteko eskualde baten esnatzea jaso dute liburu batean

Atzo iluntzean aurkeztu zuten egileek, 'Frankismoa eta Trantsizioa Tolosaldean eta Leitzaldean' liburua

Itzea Urkizu Tolosa

Francoren garaia eta ondorengo trantsizio aldia izan ziren hizpide, atzo iluntzean, Tolosako Zerkausion; TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkariaren eskutik argitaratutako *Frankismoa eta Trantsizioa Tolosaldean eta Leitzaldean* liburua aurkeztu zuten, Jon Mintegiaga eta Joxemi Saizar egileek. BERRIA egunkariko zuzendaria Martxelo Otamendi ere eurekin izan zen agerraldian.

Mintegiagak eta Saizarrek bi zati nagusitan banatu dute liburua. Horrela, historiaren beraren kontakizunaz gain, «eskualdeko bizitzan zeresana izan duten hamasei lagunen lekukotza» jaso dute, elkarrizketa formatuan. Liburuko hitzaurrearen arabera, bi atalak osagarriak dira. Kontakizunean gehiegi garatu gabe geratu diren gaiak elkarrizketatutako pertsonaien testigantzek osatzen baitituzte.

Aipatzekoa da, era berean, 2008. urtean Mikel Errazkinek eta

Joxemi Saizarrek argitaraturiko 1936ko *Gerrako Oroitzapenak* liburuaren nolabaiteko jarraipena dela atzo aurkeztu zutena.

«Gertu eta urruti aldi berean»

Eskualdean frankismoa ezarri, eta 1980ko hamarkadaren hasiera bitarteko gertakariak ditu hizpide liburuak. Martxelo Otamendiren ustez, «gertakari haiek, batzuk besteak baino gehiago, oso gertu daude gure egunetatik. Gertu eta urruti aldi berean. Ger-

Idea desberdinekin erregimenari aurre egin ziotenen bizipenak gogora ekarri dituzte

tu, bizi eta, askotan, jasan zutenentzat; urruti, bizi ez zituztenentzat».

Bide honetan, Otamendik *Frankismoa eta Trantsizioa Tolosaldean eta Leitzaldean* liburua apustu bat dela nabarmendu zuen. Era berean, 80ko hamarkada bitarteko bizitza politiko, sozial, sindikal eta kulturean gertatutakoa biltzea eta kontatzea ausardiatzat jo zuen, «sekula horrelakorik egin ez delako eskualdean».

Liburuko hitzaurrean nabarmetzen duen bezala, liburua

protagonistak bizirik dauden bitartean egin nahi izan dute, historikoa izateaz gain, lana garaikidea izan dadin.

Garaituen ikuspegia

«Liburu hau ez da neutroa, objektiboa». Hauxe da liburuan, egilearen argibideetan irakur daitekeena. Jon Mintegiaga eta Joxemi Saizar garaituen ikuspegian lerrotatu dira lana idazterakoan, baina «zentzu zabala eskaini» nahi izan diote liburuari, ikuspegi hirukoitz batetik.

Antifrankismoa da lanaren ardatzetako bat. Erregimenari aurre egin zioten saiatu ziren askotariko taldeak hartu dituzte kontuan, iraultzaileetatik hasi eta erreformazaleagoa zirenetaraino; talde independentistak nahiz estatu ikuspegia zutenak izan dituzte hizpide.

Ildo abertzaleari ere tira diote *Frankismoa eta Trantsizioa Tolosaldean eta Leitzaldean* liburuan. Abertzalea bera 'herri maitalea' bezala ulertu dutela argitu dute egileek hitzaurrean, eta beraz, «nazionalista edo independentista zertan izanik ez duena». Hala

ere, Euskal Herria herri bezala tratatu dute, «erregimen frankistak inplizitoki onartua» ere izan zela baieztatuz.

Azkenik, lanaren hirugarren adarra soziala da: «Jendartea antolatzeako moduak talkak eta gatazkak sortzen ditu talde edo interes kontrajarrien artean». Egoera honen aurrean, egileek «gutxien duenaren edo behar handiena duenaren arrazoieta gehiago sakonduz» osatu dute lana.

Hiru ildo hauei jarraituz, duela hamarkada batzuetako historia jaso dute, beraz. Hamaika izen-abizen ere ikusiko ditu irakurleak, ordea, liburuko orrialdeetan, historia gertukoak diren pertsonaiekin identifikatzen, gertukoagoa edo errealeagoa suertatuko delakoan.

Bizipenen ahotsak

Gerraosteko garaiarekin hasten da liburua, eta bost kapituluatan, trantsizio garaiko frankismoaren erreformarainoko gertakariak ekartzen ditu gogora.

Testigantzen atalak, eskaintzen du, ordea, historiari gertukoena. Urte haietan, modu batera

edo bestera, eta ideia batzuekin edo besteekin, erregimenaren aurka azaldu ziren 16 ahots bildu dituzte Mintegiagak eta Saizarrek.

Elkarrizketatutako hamasei gizon-emakumeak, eskualdekoak edo eskualdearekin harreman zuzena izandakoak dira: Amnistiaren Aldeko Gestorako eta Euskadiko Ezkerrako zinegotzia izandako Martin Agirrezabala; ELA-STV sindikatuko eta Euskal Sozialista Biltzarra alderdiko sortzailea izan zen Kepa Anabitarte; Jokin Aranalde, ETako nahiz ORTko kidea izandakoa; Jesus Artetxe, ETako kide izandakoa, PCEn aritutakoa, eta azken urteotan Ibarako Ezker Batuako zinegotzia izan dena; Tolosako Udaleko zinegotzia nahiz diputatua izandako Jesus Maria Azurza; CIT-TEEko sortzailea izan zen Antxon Eloseggi; Xabier Eloseggi tolosarra, ETako kide izatea leporatuta atxilotu zuten lehenengo pretsona, gaur egun Baionan bizi dena; hauteskunde ondorengo lehen hiru legealdietan, PNV alderdiarekin Tolosako alkatea izandako Mirentxu Etxeberria; Pello Ezeiza, Herri Gaztedi mugimenduan hasi, hainbat mugimendu komunistetako militante izan, eta STEE-ELIASeko nahiz Elkarriko kide izandakoa; Laskorain ikastolako guraso batzordean lanean aritutako Pepi Gorostidi, lehen hauteskundeetan Herri Batasunako zinegotzia izan zena, eta gaur egun Senideak eta Etxerat erakundeetan lanean aritzen dena; gozogle bezala ezagunagoa den Jose Mari Gorrotxategi, Oargiko lehenbiziko lehendakaria; Antton Karrera amezketarra, Burgosko prozesuan ETako kide izateagatik epaitua, eta gerora, CCOOko kide eta Ezker Batua alderdiarekin Donostiako zinegotzi izana; erbesteetan jaiotako Ramon Labaien, PNV alderdiarekin Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburua eta Donostiako alkatea izandakoa; Oargin Juventud Obrera Católica mugimenduan hasi, eta ETA VI. batzarrean nahiz ORTko komite nazionalaren aritutako Juan Jose Martinez Leunda, gaur egun Eusko Alkartasunako militantea dena; Jesus Mari Penilla, zinemari loturiko pertsona izan arren, manifestazio nahiz gose grebetan parte hartutakoa; azkenik, Euskal Herriko Alderdi Karlistarekin, lehen hauteskundeetan ondoren Tolosako zinegotzia izandako Bitxori Salinas.

Liburua eskuragarri

Etzi Tolosan egingo den Gabonetako azoka berezian, eskuragarri izango da *Frankismoa eta Trantsizioa Tolosaldean eta Leitzaldean* liburua, TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkariak jarriko duen postuan, Gernikako Arbola inguruan. Liburuak 18 euroko prezioa izango du; harpidetuntzat berriz, 15 eurokoa.

• tolosa@hitza.info

Beti Alai

jatetxea

Garaian
garaiko janariak
Arraikietera berezia

943 67 33 81 / 943 67 19 20 • Erremerterri kalea, 16 • 20400 TOLOSA

SALGAI

■ **Etxebizitza.** Tolosan etxe adosatua salgai: eguzkitsua da eta lau gela, bi bainugela, komuna, egongela-jangela handia, sukualdea, bi autorentzako garajea, txokoa, jardina eta trastelekua ere baditu. Intere-

satuek deitu 678 267657 telefono zenbakira.

ALOKAIRUAN

■ **Etxebizitza.** Tolosan etxebizitza alokatzen da. Interesa dutenek deideztela 635 706 843 telefono zenbakira.

Berazubiko eskolen sorrera eta ibilbidea

Hemendik gutxira botako dituzten Berazubiko etxeak eta irakasleen etxeak 1960an inauguratu zituzten

1975ean itxi eta Gorosabel, Haur Eskola eta Laskorain ikastetxeek erabili dituzte

Joxemi Saizar Tolosa

Aurki botako dituzte Berazubi auzoko eskolak eta irakasleen etxebizitzak. 1960an inauguratuak, ikasle ugari izan dira bertako ikasgeletan urte luze hauetan zehar. Sorrerari buruzko dokumentazio idatzi eta grafiko ugari aurkitu ditu hitzak Tolosako Udal Artxiboan eta Koldo Mitxelena kulturuneke hemerote kan. 1956an, Tolosaren fundazioaren VII. Mendeurrena ospatu zenean, Berazubiko zubia eraiki zen, Alfonso X. Jakintsuaren izena hartuz. Berazubi auzoko lehen etxeak 1957an eraiki ziren, 1936ko gerran Francoren aldeko bandoan buruzagi izan zen Pantaleon Zaballaren izena zeraman 155 etxebizitzako multzoa, gaur egun Elkano eta Rekalde almirantearen izeneko kaleak. Eskolak 1960an eraiki ziren. Ondorengo etxe multzoa, hasieran Pio XII. eta gero Martin Jose Iraola etorbidea deitzen dena, 1965ekoa da.

Inaugurazio ekitaldia

Udal aktetan jasota dagoenez, 1957an erosi zizkion udalak lurrrak Fresnoko markesari, Iurrea-mendiko jabeari. Handik bi urtera egin zen sei gela (bi pisutan) eta irakasleentzako sei etxebizitza eraikitzeke obren enkatea, 1.664.278,31 pezetako aurrekontuarekin, eta Miguel Angel Abaigar kontratistak irabazi zuen.

1960ko abuztuaren 11n egin zen inaugurazio ofiziala, Tolosako «liberazioaren» XXIV. urtemugan. Garaiko prentsatik jaso dituzten xehetasunak. Meza eta teudemaren ondoren, Enrique Ortiz de Zarate eta udalbatzar osoak, Wenceslao Maiora parrokoa, herriko ikastetxe guztietako ordezkariak, Guillermo Rivera *Movimientoko* buru lokala eta Guardia Zibilaren kapitainarekin batera, Berazubiko zubian itxaron zieten kanpotik etorritako agintariak: Tena Artigas Lehen Hezkuntzako zuzendari nagusia (Jose Solis hezkuntza ministroaren ordezkari gisa), Jose Maria del Moral gobernadore zibila, Pablo Hunolt diputatu probintziala (Diputazioako lehendakariaren ordezkari gisa), Juan Aizpurua *Mo-*

vimientoko subjefe probintziala, Aurelio Villa Lehen Hezkuntza ordezkari administratiboa eta Eskola Eraikuntzeko idazkari probintziala eta Josefina Oloriz Lehen Hezkuntzako Gipuzkoako inspektore burua. Udal Musika Bandarekin batera joan ziren denak eskoletaraino.

Ministroaren ordezkariak zinta moztu zuen, musika bandak himno nazionala jo zuen, parrokoak bedeinkazioa eman zuen eta ikasgelak bisitatu zituzten «egoitza modernoa eta gusto ona» go-raipatuz denek, prentsaren arabera. Ondoren, gela batean, Francok emandako Cisneros *kaballero* ordena jarri zion gobernadore zibilak Ortiz de Zarate alkateari udaletxean egindako lanagatik. Honen hitzaldi hunkituaren ondoren, eskerrak emanez, «vino español» bat serbitzu bukatu zen ekitaldia.

Guztira 1.903.303 pezeta kostatu zen obra, Enplegutik 789.733 pezeta jasoz, Estatuak 738.570 pezeta jarritz eta Diputazioak 150.000 pezetako laguntza emanez.

Itxiera eta berrerabilpena

Eskolak martxan 1961eko otsailan jarri ziren. Garai beretsuan eraiki ziren Bedaio, Aldaba, Olarrain, Amaroz, Urkizu, Santa Luzia eta Izaskun nekazal auzoetako eskolak. 1972an alderantzizko bidea egin zen: auzo eskolak itxi eta kontzentrazioa bultzatu zen. Izaskun auzoko ikasleak Berazubira pasatu ziren eta Santa Luzia, Olarrain eta Urkizukoak Santa Luzia auzoan eraiki zen eskola berriari, Felix Maria Samaniego izenekoa. Aurrekoak Aldaba eta Bedaiokoak itxi eta Alegira pasatu ziren ikasleak.

Berazubiko eskolan, beheko pisuko hiru geletan mutilak aritzen ziren eta goiko hiru geletan neskak, 1971ean Oinarrizko Heziketa Orokorra (EGB) martxan jarri eta talde mistoak egin arte. Geroago, ondoan, etxetxo oktagonak eraiki ziren Eskolaurrerako. Berazubiko eskola gisa 1975 arte funtzionatu zuen, gero Gorosabel ikastetxe publikoan integratuz ikasgela hauek. Gorosabel Santa Luzia auzora pasatu zenean ikasgelak udal Haur Eskola eta Laskorain ikastolak erabili zituen aurtengo ekaina bitarte.


Milaka ikasle eta irakasle asko pasatuko ziren urte luze hauetan Berazubiko eskoletatik eta talde ugari irakasleen etxetatik: Ur-txintxak eskaut taldea, gabinetetik psikologikoa, herriko musika taldeak...



Eskolen eta irakasleen etxeen inaugurazioa, 1960eko abuztuaren 11n: agintariak eta dantzariak zubian, eta arkua agintariel. TOLOSako UDAL ARTXIBOA



Dantzariak, ministroaren ordezkaria zinta moztzen alkatearen ondoan, eta Maiora parrokoa bedeinkatzen. TOLOSako UDAL ARTXIBOA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Auzo lokalak, kultur azpiegitura eta estalkiak plazan, udalaren proiektua Larramendirako

Errepidearen lurperatzea ez egiteagatik 2,5 milioi euro egongo lirarteke auzo egongo lirarteke azpiegitura berrientzako

Imanol Garcia

Larramendi auzoaren inguruko bere proiektua aurkeztu zuen Tolosako Udalak Topic-en egindako herri batzarrean. Larramendi errepidearen lurperatzea ez egiteagatik 2,5 milioi euro egongo lirarteke eta horiekin zer egingo den azaldu zuten. Alde batetik, oraindik egin gabe dagoen eraikinaren behe solairua izango luke udalak, 500 m² ingurukoa, eta bertako erabilera Larramendiko auzo elkarteak erabakiko luke. Bestalde, Arkate parkeko etxea, egun Gurutze Gorria dagoena, eraberrituko litzateke eta eraikin bat gehituko litzaioke, 800 m² ingurukoa. Azpiegitura guztia kultur ekin-tzetara bideratuko litzateke. Horrez gain, etxebizitza eraikin berrien arteko plazan estalki batzuz jarriko lirarteke. Bestalde, errepidearen erdialdean ibilgai-luak mantxoagoa joateko aktua-zioa egingo litzateke, egun Trianguloa plaza eta San Frantzisko etorbidearen hasieran dagoenaren antzekoa. Proiektu horrek ez luke suposatuko etxebizitza gutxiago egitea.

Topic-eko aretoa guztiz bete zen proposamenaren berri izateko. Udalaren proiektuaz gain, egun onartuta dagoenaren berri eman zen ere, hau da, lurperatzea barne hartzen duena. Bi proiektuen azalpena Fiarik estudioiok kide batekin egin zuten. Ibai Iriarte alkatea bertan izan zen, eta besteak beste, udalaren proposamena irekia dela azaldu zuten, bai auzo elkartearen lokalaren erabilera motari, bai kultur azpiegituraren erabilerrari, eta baita estalki motari dagokionez ere.

Bileran bi arkitektoen parte hartzea izan zen ere. Udalak ahol-



Udalak proposatu duen proiektuaren bi irudi. Eraikin berriak zuriz daudenak dira. Eskuineko irudian, etxebizitza berrien arteko plazatik begiratuta, atzean Arkate etxeari atxikitako eraikina ikusi daiteke. HITZA



Egun onartuta dagoen proiektuaren bi irudi. Errepidearen gaineko plaza, bi borobil erdi berdeen artekoa da. HITZA



kua eskatu dio Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialari, eta honek Alex Peña eta Esteban Garcia arkitektoak izendatu zituen bi proiektuaren inguruko iritzia emateko. Hauek bileran azaldu zuten, lurperatzearen proiektua ez dute egokia ikusten. Lurperatzearekin oinezkoentzat espazioa irabazten dela zehaztu zuten, baina proiektua osotasunean ikusirik «proporzionaltasun irizpidea» kontuan hartu behar dela esan zuten. «Bide bat lurperatzea bezalako aktua-zio urbanistikoak egiten direnean, zerbait ezin gaindituzkoa dagoen egin ohi dira; trenbide bat, adibidez».

Lurperatzearen aldekoak

Herri batzarrera joan zirenen artean, gehientsuenak lurperatzearen aldeko bizilagunak izan ziren. Egindako galdera eta emandako iritzi gehienak lurperatzea egite-

aren ikuspuntutik izan ziren. Udalak herritarrei urbanizazio proiektua erabakitzeak aukera ematea goraipatu zuena ere izan zen.

Lurperatzearen alde dauden bizilagunek astelehenean bilera batera deitu zituzten auzokideak kultur etxean, bere argudioen berri emateko. Jende ugari izan zen bertan ere. Argudio horiek ere plazaratu zituzten Topic-eko bileran. Besteak beste, etxebizitza berriak erosterakoan egungo proiektuaren urbanizazioa ere ordaindu dutela eta bere eskubidea dela proiektu hori gauzatzea esan zuten.

Horrez gain, lurperatzearen kontrako iritzia orain gutxi sortutakoa dela esan zuten bizilagunek: «Ezker abertzaleak epaitegi-tara eramane zuena bolumetria izan zen, hau da, etxebizitza kopuru handiegia zegoela. Lurperatzea ez da hika-mikan egon inoiz.

Orain etxebizitza kopuru hori zerbait gutxitzeko lurperatzea erabili nahi da txanpon trukaketa modura, lurperatzeari eragozpenak bilatuz. Inork ez zion lurperatzeari helegiterik jarri, ezta zalantzan ipini».

Lurperatzeari buruz, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2007an argitaratutako urbanizazio proiektuaren memoriaren zati bat nabarmendu zuten. Bertan esaten denez, «antolaketa berriekin, egun Larramendi kaleak suposatzen duen barrera kendu nahi da, bi aldeetako bizilekuak lotuz errepidearen zati baten lurperatzearekin eta elkartzeko elementu bezala sortuko litzatekeen plaza handiarekin».

Bizilagun hauek ere lurperatzeari ikusten dizkioten «onurak» nabarmendu zituzten: «83 metro zabaleko zubia eta aisialdi gune handi bat sortzea; oinezkoentzako 1.000 m²ko onura tolosar guz-

tiontzat; eta 1.000 etxebizitza plaza handi baten bidez loturik eta ez errepideak bananduta».

Hurrengo pausoak

Hemendik aurrera zabaltzen den prozesuaren inguruan batzorde bat bultzatu du udalak. Topic-en egindako bileran, batzorde horretan parte hartzeko deia zabaldu zuten alkateak. Zenbait bizilagunek izena eman zuten bertan.

Prozesu horretan herri batzar gehiago egin behar diren erabaki, informazioa nola zabaldu eta erreferendumean prestatzea landuko lirateke, besteak beste. Ibai Iriartek zehaztu zuenez, erreferendumean Larramendi auzoko bizilagun guztiek parte hartuko dute, hau da, Larramendi zubitik hasi eta gasolindegira bitarte bizi direnak. Bestalde, proiektu bat edo bestea egingo den sei hilabete epean erabakiko dela esan zuten alkateak.



Egin HITZAren harpidedun

abenduaren 31 baino lehen, eta jaso

MAHALA ekoizlearen

produktu sorta hau

OPARI

Bertako informazioari, bertako produktuak



hitza

Harremanetarako:
902-82 02 01
harpidetza@hitza.info

Gaztetxearen 24 urteak ospatzeko, egun osoko festa

Larunbatean Alegiako Gaztetxeak 24 urte beteko ditu; babarrun jatea, mus txapelketa eta kontzertuak daude

E. Maiz Alegia

Alegiako Gaztetxeak aurtin 24. urteurrena ospatuko du, eta egun batera mugatu dute ospakizuna. Larunbaterako, egun osoko festa antolatu dute, eta 14:00etan babarrun jatea egingo dute. Ondoren, nahi duenak mus txapelketan parte hartzeko aukera izango du.

19:00etan Manillares taldeak arratsaldeko pasea egingo du. 20:00etan, berri, eta ohiturak ez galtzeko, zahagiardoa egingo dute.

Behin afalduta, 22:00etatik aurrera musika izango da nagusi, eta lehen txanda herritarrena izango da. Manillares Iturriaga alegiarrek osatutako taldeak herriaren bertan kontzertua emango du. Jarraian, Djen txanda izango da: Dj Beba, Dj Jokin eta Dj Panda ariko dira estilo ezberdineko musika jartzen. Festa nahi duenak, beraz, Alegiako Gaztetxean izango du aukera.

● alegiadea@hitza.info

Carlos Peña 24 orduz igerian ariko da Castelldefelseko Ubide Olinpikoan

E. Maiz Tolosa

Igandean, hilaren 18an, Kataluniako TV3 telebista kateko maratoiaren 20. aldia izango da. Organo eta ehunen transplante eta birsortzeari laguntzeko izango da, eta kirolari askok parte hartuko dute. Horien artean Carlos Peña igerilaria izango da.

Tolosarrak, 22 urte daramatza honelako ekitaldi solidarioetan parte hartzen. Oraingoan, Castelldefelseko Ubide Olinpikoan egingo du igeri, eta 24 orduz ariko da. Larunbatean, 12:30ean hasiko da, eta igandeko 12:30ak arte bizkar estilok egingo du igeri.

Tolosako Orfeoia Eguberrietako kontzertua eskainiko du

Larunbatean kontzertua 20:30ean izango da Leidor Antzokian; sarrerak 12 eurotan eskura daitezke

E. Maiz Tolosa

Tolosako Orfeoia, urtero bezala, Eguberrietako Kontzertua eskainiko du abenduaren 17an, larunbatean herrian bertan. 20:30ean izango da Leidor Antzokian.

Tolosako Orfeoia lehenbiziko zatian, Mozarten *Koronazio Meza* interpretatuko du, eta ondoren, Tolosako Eskolaniarekin batera Gabon Kantak abestuko

dituzte. Ignacio Ruiz de Alegria izango da zuzendari lanetan.

Iruñeko Concerto orkestrarekin batera jardungo dute, eta bertan parte hartuko dute Elena Sancho sopranoak, Iker Casares tenoreak, Marife Nogales kontraltoak eta Jose Bernardo Alvarez baxuak.

Sarrerak salgai jarri dituzte, eta eskuratu nahi duenak bide bat baino gehiago ditu: Tolosako Orfeoia zaleen bidez, Leidor Antzokiko leihatilan bertan edota Tolosako Orfeoia Nafarroa Etorbidean duen egoitzan eros daitezke. Sarreraren prezioa 12 eurokoa da, eta ez daude zenbatuta. Bazkideek sarrera bana doan izango dute.

● tolosa@hitza.info

Bihar 'Sarean zintzilikatua' antzezlan izango da

Ikaztegiako udaletxe azpiko areto nagusian izango da 21:00etan; Edurne Agirrezabalaren bakarriketa izango da

E. Maiz Ikaztegieta

Ikaztegiako Udazken Kulturaren barruan, bihar, ostirala, antzezlan izango da ikusgai. Kasu honetan, Edurne Agirrezabala aktoreak antzeztuko duen bakarriketa bat izango da.

Sarean Zintzilikatua izango da antzerkia, eta 21:00etan hasiko da. Komedia hau, Horratx! Antzerki taldearen lana da, eta ordu bete inguruko iraupena izango du. Teknologia berrien aurrean Olatzek dituen erreakzio ezberdinekin egingo du topo ikusleak.



Oso zaila egingo zaio guztia ulertzea, eta are gehiago, inposatzen zaizkion abiaduran. Bere bizimodu apalean, guztiak barneratzea zenbat kosta zaion kontatuko du. Ikaztegiako udaletxe azpiko areto nagusian izango da emanaldia.

I. Jostailuen Truke Eguna eta Morauren kontzertua izango dira

Kontzertua bihar 20:30ean izango da Asteasuko Iturriondon; Jostailuen Truke Eguna, berri, larunbatean

Eneritz Maiz Asteasu

Asteasun, kultura talde berria sortu dute herriari bizia emateko helburuarekin. Asteburu honetarako bi ekitaldi antolatu dituzte. Alde batetik, Andoni Tolosa, *Morauren* kontzertua, eta bestetik, Asteasuko I. Jostailuen Truke Eguna egingo dute.

Kontzertua bihar izango da Iturriondo tabernan. 20:30ean hasiko da, eta doan izango da. Euskal kantagintza Berriaren historia laburra egingo du. 19.16. urtetik hasi eta 1990. urtera bitartean. Gitarra eta kantuaz gain, bideoak, argazkiak eta istorioak izango dira.

Bertaratuek, emanaldiari ja



Egoera onean dauden jostailuak trukatzeko aukera izango da. HITZA

rraipena emateko aukera izango dute, afaria tertulia eginez.

Trukerako aukera

Larunbat eguerdian berri, Asteasuko I. Jostailuen Truke Eguna egingo dute. Jostailuak, 11:30etik 12:00etara eraman beharko dira, eta trukatzeko ordua, 12:30etik 13:00etara izango da.

Egoera onean dauden jostailuak eraman beharko dira, eta hiru koloreen arabera sailkatuko dituzte: jostailuak (mahai jolasak, kotxe kapotak, informatika

materiala,...); kirol materiala (patinak, palak, kaskoak,...) eta jostailu txikiak (panpinak, kotxe txikiak,...).

Jostailua eramaten duenari, txartela banatuko diote pegatina batekin, eta txartelaren kolorearen arabera, alde aurretik sailkatutako jostailuetako bat hartzeko aukera izango du. Lagun bakoitzak jostailu bakarra hartu ahal izango du.

Parte hartzeko deia luzatu dute, bai Asteasuko Udalak eta baita Guraso Elkarteak ere.

Enausketa zera izan behar du martxan!
Enausketa, labe prestatzekin

PLAN PREVER PEUGEOT 2.600€ ZURE KOTXE ZAHARRARENGATIK

P-5008

PEUGEOT

TOLOSA MOTOR, S.A. PEUGEOT KONTZESIONARIOA
San Esteban auzoa, 14-A • 20400 TOLOSA • Tel.: 943 650 337 / Faxa: 943 652 938 • tolosa@tolosa.redpeugeot.com



Ibarran Egin dezagun bidea ekimenari ondorengo eragileek eman die atxikimendua: Eneko Aritzaren Lagunak; Gazte Asanblada; Zikloturista taldea; Euskara taldea; Subegi kultur elkarte; Sokatira taldea; Bai Euskal Herriari; Gazte Independentistak; Denak areto futbol taldea; Lauburu kirol elkarte; Haitzetan Raju mendi taldea; Ibarra Racing; Langostino moto elkarte eta Autoeskola Antikapitalistak. A. IMAZ

Preso eta iheslarien defentsan abendua ekitaldiz bete dute

Anoeta, Ibarra, Villabona eta Tolosako Egin dezagun bidea herri bilguneak herritarren parte hartzea eskatu dute

Urtarrilaren 7an Bilbon egingo den manifestaziora joatea eskatu dute

Asier Imaz

Eskualdeko hainbat herri eta udalek, euskal preso eta iheslarien alde, ekitaldi ugari antolatu dituzte abenduan, Egin dezagun bidea ekimenaren babesean.

Udalei dagokienez, Bilduko hautetsiak mozioak aurkeztzen ari dira udalbatzetan. Horrez gain, adibidez Ibarra eta Villabonako kasuan, udal hautetsiek 24 orduko baraualdia egingo dute hilaren 16an, bihar.

Herritarrek ere ez dira atzean gelditu. Pixkanaka-pixkanaka

Egin dezagun bidea ekimenaren inguruan elkartzen jarraitzen dute. Egin dezagun bidearen helburua herri bakoitzean preso eta iheslarien eskubideen aldeko herri bilgunea sortzea da, erreprezentatuen eskubideak bermatzeko. Bide horretan, ordea, azken hitza herritar guztiek dute, izan ere, taldeak eurek sortu behar dituzte. Eta mugimendua abian da, eskualdeko hainbat herritan biztanleak lehen urratsak ematen hasiak baitira.

Ibarran sortzen ari den Egin dezagun bidea herri bilguneak

prentsaurrekoa eskaini zuen herenegun, kultur etxean. Bertan, abendurako antolatu dituzten ekimenak aurkezteaz gain, urtarriaren 7an Bilbon egingo den manifestaziora joateko deialdia luzatu zuten. Tolosan bezala, autobusa aterako dute Ibaratik, eta bi herrietan zerrendak ohiko lekuetan aurkitzen omen dira.

Anoetatik eta Villabonatik ere deialdi bera luzatu dute, hau da, herritarrei Bilboko manifestaziora joatea eskatu diete, «kolosala» izango dela gaineratuaz.

Estropadak, argazki rallya...

Tolosako Egin dezagun bidea ekimenak goiz potoloa antolatu du larunbat honetan, hilaren 17an. Lehenik, 10:00etan, preso eta iheslarien eskubideak aldarrikatzen dituen banderola erosteko aukerara jarriko dute Trianguloan. Ondoren, herritar guztiak 10:30ean egingo duten prentsa agerraldira

deitu dituzte, udaletxera. Azkenik, eta goizari amaiera emateko, 12:00etan estropadak antolatu dituzte Oria ibain. Tolosako Arraun Klubak bat egin du ekitaldi honekin: «Tolosaldeko arraunlariek bat egiten dugu espetxe politika eta oinarritzko eskubideen ukazioaren aurka egiten ari den kanpainarekin, *Nirekin-Gurekin kontatu* lelopean».

Villabonan herriko hainbat koadrila izan dira Mus Txapelketa antolatu dutenak larunbatean. Zentroan 16:00etan hasiko da karta jokoa, eta ordubetan lehenago izena emateko aukera zabalduko dute. Bikote bakoitzak 20 euro jarri beharko ditu, eta lehen lau onenek sari bikainak jasoko dituzte. Hurrengo egunean, igandean, Argazki Rallyan parte hartzeko aukera edukiko dute herritarrek. Doako izen ematea herriko plazan izango da, 10:00etatik 10:45era.

↓ Egitarauak

ANOETA

■ **Hilak 17, etzi.** Herri batzarra udaletxean, 11:00etan.

IBARRA

■ **Hilak 16, bihar.** Gaztainak eta banderolak salgai, plazan. Bilduko hautetsiek baraualdia, 12:30 elkarretaratzea.
■ **Hilak 20, asteartea.** Kantatzen ateratzeko, entsegua: 19:30ean Subegin.
■ **Hilak 23, ostirala.** Gaztainak eta banderolak salgai, arratsaldean, herriko sarreran.
■ **Hilak 24, larunbata.** Gosaria Subegin, 09:30ean. Ondoren, kantatzera eta 18:45ean, manifestazioa Tolosan.
■ **Hilak 30, ostirala.** Azken ostirala herriko sarreran, 19:30ean.
■ **Hilak 31, larunbata.** Manifestazioa plazatik, 19:00etan: *Euskal preso eta iheslariak etxera!*

VILLABONA

■ **Hilak 16, bihar.** Bilduko udal hautetsiek 24 orduko baraualdia egingo dute. 12:00etan elkarretaratzea.
■ **Hilak 17, etzi.** Herriko hainbat koadrilen ekimenez preso eta iheslarien aldeko Mus Txapelketa 16:00etan, Amasa-Villabonako Zentroan. Izena emateko epea 15:00etan zabalduko dute.
■ **Hilak 18, igandea.** Argazki Rallya plazan, 10:00etan. Epai-mahaia herriko preso eta iheslari politikoek osatuko dute.
■ **Hilak 31, larunbata.** Giza katea Iru Aldetatik, 19:00etan.
■ **Hilak 31, larunbata.** Zizurkil-dik Villabonara, manifestazio isila, 19:00etan.

TOLOSA

■ **Hilak 17, etzi.** Trianguloan banderolak salgai, 10:00etatik aurrera. 10:30ean, prentsaurrekoa udaletxean, eta presoan aldeko estropadak 12:00etan.
■ **Hilak 24, larunbata.** Kantari irtengo dira 10:00etan, Trianguloatik. Eguerdian bazkaria Oargin, eta 18:45ean, manifestazioa Tolosako Trianguloatik.



HITZAK harpidedunentzat **bi sarrera** pare ditu

Eguberriko kontzertua

Abenduak 17 • Larunbata
20:30ean
Tolosako Leidorren



Tolosako Orfeo
Orfeon de Tolosa

harpidedun
TXOKA hitza

HITZAK harpidedun batentzat **sarrera** pare du

Abenduak 17 • Larunbata
20:00etan
Donostiako Ilunben

LAGUN ARO GBC
Fuenlabrada
saskibaloia partida



Zozketan parte hartzeko deitu **943 65 56 95**



sarrerak

Haizeari dagokion alerta laranja eman dute gaurko

Udaltzaingoak hainbat gomendio eman ditu, ate, leiho eta balkoietako estalkiak ondo ixteko, esaterako

Rebeka Calvo Tolosa

Eusko Jaurilaritzako Larrialdiei Aurregiteko eta Meteorologia zuzendaritzaren gomendioei jarraituz, Tolosako Udaltzaingoak hainbat eskaera egin ditu atzo arratsaldean hasitako haize ufa-da indartsuak direla eta.

Haize ufadak, dena den, itsasoa nabaritutako dira gehien. Horiek horrela, gaurko itsasaldeko arriskuari dagokion alerta gorria eta haizeari dagokion alerta laranja eman du Eusko Jaurilaritzak.

Prebentzio neurriak

Prebentzio neurriak dagokionez, ate, leiho eta balkoietako zein leihoetako estalkiak itxi edo ondo tinkatzeko eskatu dute; lorontziak eta kalera erori daitezkeen gauza guztiak kentzeko eskatu

dute; eta baita aldamio, garabi eta obrako beste elementuak tinkatzeko ere. Era berean, erlaitz, murr, zuhaitz edo publizitate hesie-tatik urruntzeko eta eraikitzen ari diren etxeen edo kolokan dauden eraikinen aurretik pasatzean kontuz ibiltzeko eskatu dute.

Bidaia-tuz gero ere errepidez ez bidaia-tzeko eskatu dute, eta bidaia atzeratu ezin bada, kontuz egiteko eskatu dute.

Udalentzako gomendioak

Eusko Jaurilaritzak udalentsako gomendioak ere egin ditu. Hauetako udaleko larrialdiko planeko ekintza-planean agertzen diren langileei abisua emateko eskatu die, eta baita herrian dauden aldamio, garabi eta obrako beste elementuak begiratzeko eta ondo tinkatuta dauden ziurtatzeko ere.

Hiri-altzariak, zabor-ontziak edo istripua eragin dezaketen elementuak tinkatzeko ere eskatu dute.

Bukatzeko, instalazio ezegonkor, eramangarri edo desmuntagarri, karpak adibidez, tinkatuta dauden ikusteko eskatu diote udalei.

Urrezko Aizkolari Txapelketako saioa izango da igandean

Leitzako Amazabal pilotalekuan izango da jardunaldia 12:00etatik aurrera; B taldeko lehen kanporaketa izango da

R. C. Leitz

Igandean, hilak 18, Leitzako Amazabal pilotalekuan Urrezko Aizkolari Txapelketako jardunaldia izango da. 12:00etan hasiko da saioa, eta B taldea osatzen duten bikoteen lehen kanporaketa izango da.

Lehen kanporaketa honetan eskualdeko bi ordezkari izango dira, bikotea osatzen dutenak, gainera: Leitzako Jon Rekondo

eta Ibarako Jesus Mari Mujika. Eskualdeko bi ordezkariak Jose Mari Olasagasti eta Luis Txapar-tegi izango dituzte aurrez aurre.

Irabazten duen bikoteak Zizurkilgo Joseba Otaegi eta Ibarako Unai Otaño izango du aurkari hurrengo jardunaldian.

Leitzako jaialdian bikoteen arteko lehiarekin batera, Etorkizuneko Aizkolariaren Eguberrietako Torneoko bigarren edizioa izango da jokoan.

Txapelketa Leitzan izan zen iaz ere, eta herriko Arkaitz Olanok irabazi zuen. Aurten Olano bere-ekin batera Leitzako Ruben Saralegik eta Zizurkilgo Jon Irazuk hartuko dute parte, eta baita Arkaitz Jauregik eta, Mikel Larrañagak eta Jon Rodrigezez ere.



Urrezko Aizkolari Txapelketako iazko Leitzako saioa. A. IMAZ

Eriz Magoa izango da etzi, Tolosako Trianguloa plazan

Tolosa & Co elkartearen Gabonetako kanpainaren barruan ikusi ahal izango da «birziklapen magia»



R. C. Tolosa

Tolosa & Co merkatari elkartearen Gabonetako kanpainaren barruan, «birziklapen magia» ikus-kizuna izango da larunbat honetan Trianguloa plazan.

Eriz Magoa izango da 17:30etik aurrera, eta Intujai teatrotik azal-dutakoaren arabera, «birziklapen eta magiaren laguntzarekin zenbait hanka sartze konpontzen saiatuko da». «Gatz eta piper ukituarekin, umore fina eta guzti», gaineratu dute.

→ Laburrak

Ez ohiko batzarra egingo dute bihar, 19:00etan

IBARRA » Udalak udalbatza osoaren ez ohiko batzarra egingo du bihar, ostirala, 19:00etatik aurrera udaletxeko pleno aretoan. Gai bakarra izango dute hizpide ez ohiko batzarrean, ohiko galdera eta erreguen txanda ireki aurretik: Bilduk aurkeztutako euskal presoaren eskubideen aldeko mozioa.

Lau etxebizitza tasatuen behin behineko zerrenda

IBARRA » Ibarako Udalak jakinarazi duenez, udalaren webgunean eta iragarki taulan udal sustapeneko lau etxebizitza tasatuetaarako hautagaien behin behineko zerrenda argitaratu dute. Interesatuak 10 eguneko epea dute alegazioak aurkezteko, hilaren 14tik zenbatzen hasita. Alegaziorik aurkeztuko ez balitz, hautagaien zerrenda behin betikotzat joko lukete. Informazio gehiagorako udaleko Gizarte Zerbitzueta jatzeko eskatu dute.

Hirukideko ikasleak saltoki handietan izango dira etzi

TOLOSA » Hirukide ikastetxeak Eguberrietako kanpainari ekin dio, eta honen barruan Abegi eta Caritasentzako produktu iraunkorrak biltzen ari dira Batxilergoko I. mailako ikasleak. Horiek horrela, larunbat goizean Tolosako saltoki handietako sarreretan egongo dira bertako bezeroei kanpainaren berri ematen, eta erositako produktuen bat behartsuei entregatzeko aukera eskaintzen. Helburua, «gure inguruko beharrei erantzutea» dela esan dute.

Bilera deialdia egin du udalak, bihar 19:00etarako

ABALTZISKETA » Abaltzisketako Udalak jakinarazi duenez, legegaldi honetan landuko dituzten eta lantzen ari diren proiektuen berri emateko bilera irekia egingo dute bihar, 19:00etatik aurrera, herriko kultur etxean. Era berean, Abaltzisketako Udalak herritarren iritzia jaso nahi duela azaldu du. Horren harira, herritarrak animatu eta parte hartzera gonbidatu nahi ditu. Bileraren ondoren, jatekoa eskainiko dute herriko ostetuan.

Herri batzarra egingo dute bihar, 21:00etatik aurrera

BERASTEGI » Bihar, ostirala, herri batzarra egingo du udalak 21:00etatik aurrera eskolako ganbaran. Bertan bi gai landuko dituzte: zergetan emango diren aldaketen informazioa emango diete herritarrei, eta baita 2012ko aurrekontuak ere. Honekin batera, azken hiruhilabetekoan egindako gauzei buruzko informazioa emango dute, eta herritarrek ekarpenak egiteko aukera izango dute. Herritarrak animatu eta euren iritzia emateko eskatu dute.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarra: 687 410 118. ibarra@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:**

BERTAKO
HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:
Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Baliarrain,
Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Hernialde, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzea, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

DEIALDIAK

- **Ibarra.** Ibarra kirol elkarteak bigarren sei hilabeteari dago-kion batzarra egingo dute bihar. 21:00etan hasiko da, eta elkar-terko zuzendaritzak garaiz iriste-ko eskatu du.
- **Tolosa.** Jai Batzordearen bile-ra izango da gaur, kultur etxean 19:00etan.
- **Zizurkil.** Kirol Astearen ba-rruan gaur, 19:30ean kultur etxean, Fidel Mendiaren *Mutu-rreko eskia Pirinioetan* emanal-dia.
- **Bidegoian.** Udalak batzarra egingo du gaur, 21:00etan, 2011. urteko diru kontuak argitu, eta 2012. urteko aurrekontua ixteko.
- **Tolosa.** Tolosa Kantarik en-tsegua egingo du gaur, 20:00etan musika eskolan, Urtezahar egunean egingo du-ten kantujira prestatzeko.
- **Villabona.** Oinkari dantza tal-dearen Dantza Astearen ba-rruan gaur, doako kontzertua Gurean 19:30ean: Arozenata-rren ttuntuna.

ZINEMA

- **Tolosa.** Zine Forumean gaur, 19:15ean eta 21:45ean *Un cuento Chino*, Leidorren.

Farmaziak

GAUR

- **Ibarra.** L. Lejeune, Euskal Herria kalea, 46. Telefonoa: 943 67 32 74.
- **Leitza.** Larraia, M. I. Elbarren, 95. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esa-nen eta iritzien erantzukizunik.

Topic-ek txotxongilo lanekin beteko ditu Eguberrietako egunak

Etzi, eskola kanpainaren barruan, Calamar Teatroyen 'La cama voladora' ikusi ahal izango da, 18:30ean

Rebeka Calvo Tolosa

Topic zentroak Eguberrietarako egitaraua prestatu du, jai egun berezi hauek txotxongilo emanal-diekin bete asmoz.

Honen aurretik, hala ere, etzi bertan, eskola-kanpainaren ba-rruan kokatu duten *La cama voladora* ikusi ahal izango da, Calamar Teatroyen eskutik.

Lanak dantza, antzerkia eta txotxongiloak biltzen ditu, eta hiru eta lau urte bitarteko haurrei zuzenduta dago. Saioa 18:30ean hasiko da eta haurrek 4 euro ordaindu beharko dute, eta helduek 7 euro. Familia ugarien kasuan, haurrek 3 euro ordaindu beharko dute, eta helduek 5 euro. Azken hauek Topic-eko leihatilan bakarrik erosi ahal izango dituzte sarrerak.

Eguberrietako kanpainari da-

gokionez, Topic-ek lau emanaldia antolatu ditu, batetik, eta beste-tik, abenduaren 26tik 30era, 8 ur-tetik gorako gazteei zuzendutako

txotxongilo tailerrak egingo di-tuzte, 10:00etatik 13:00etara. «8 urte edo gehiago badituzu eta txo-txongilo lan bat nola egiten den



Larunbat arratsaldean ikusi ahal izango da *La cama voladora*. HITZA

↓ Eguberrietako egitaraua

- **Abenduak 17.** Calamar Tea-troyen *Ohe egalaria*, 18:30ean.
- **Abenduak 26, 27, 28, 29 eta 30ean.** Txotxongilolari parega-bea izango naizizeneko tailerra, 10:00etatik 13:00etara, 8 urte-tik gorako haurrentzat.
- **Abenduak 27.** Txotxongilo

Taldearen *Elurrezko panpina*, 18:30ean.

■ **Abenduak 30.** Teatro Plus taldearen *Pequeños deseos*, 18:30ean.

■ **Urtarrilak 7.** Angeles de Trapo taldearen *El señor Scrooge*, 18:30ean.

pausoz pauso ikasi nahi baduzu, hementxe daukazu aukera», esan dute Topic-eko arduradunek.

Tailerreko salneurria 25 euro-koa da, eta izena emateko 943 65 04 14 telefono zenbakira deitu behar da.

Era berean, txotxongiloen zen-troak eskaintza bereziak egingo ditu Eguberrietako emanaldieta-ra joateko. Lau emanaldi dira -hi-laren 17, 27, 30 eta urtarrilaren 7an- eta hiru emanaldietarako sa-rrerak erosiz gero, laugarrena oparituko dute. Familia ugarien-tzat ere salneurri bereziak izango dira. Aipatu behar da, era berean, emanaldietako bat, Txotxongilo Taldearen *Elurrezko panpina*, Ti-tirijai jaialdiaren barruan eskaini zutela, eta izandako arrakasta ikusita, erabaki dutela emanaldi hau errepikatzea.

'Elurrezko panpinak'


Elurrezko panpinak Enkarni Ge-nua eta Manolo Gomezen azken lana da. Bikote honek orain 40 urte sortu zuen Txotxongilo Tal-dea, eta urtemuga ospatzeko sor-tu zuten ikuskizuna.

«Hiru urtetik gorako txikien-tzako neguko ipuin goxo eta be-roa da, elkarrekin jolasten eta es-kuzabalak izaten ikasten duten neska-mutil eta elurrezko panpi-na baten istorioa», azaldu du Ge-nuak.

Tolosan erosteak merezi du

Tolosa&Co

Zatoz **HITZA**ko
bulegora zure
mahai egutegiaren bila!



MUS Txapelketa

Abenduak 17 - Larunbata
16:00etan • Amasa-Villabonako Zentroan

Izen-ematea:

15:00etatik aurrera
20€ bikoteko
Lau erregetara
Lau hogeikotara

SARIAK:

1. - Garaikurra
- Arkumea
- Euskal produktuen saski eder bat
2. - Garaikurra
- Bi txuleta
- Euskal produktuen saski bat
3. - Bi oilasko
- Euskal produktuen sorta bat
4. - Bi gazta
- Euskal produktuen sorta bat

Babeslea:

hitza

Laguntzaileak:



TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO hitza